

## **UPV/EHUko IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO- DEIALDIA (2023) IV. MODALITATEA** **Onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen oniritzia eta Gobernu Kontseiluaren onespena jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak (aurrerantzean VRI) honako hau argitaratu zuen:

### **UPV/EHUko IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO-DEIALDIA 2023**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ikerketen Errektoreordetzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak aztertu egin ditu aurkeztutako eskabideak, honako puntu hauek azpimarratuz:

- a) Eskatzaileek 3. oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- b) Tesi-zuzendari gisa proposaturiko pertsonen 4. oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- c) Aurkeztu beharreko agiriak, 6. oinarrian jasoak.

Zerrenda honetan **onartutzat** agertzen diren eta zuzendu beharreko dokumentaziorik ez duten hautagaiek ez dute bestelako izapiderik egin beharko.

Zerrenda honetan **baldintzatutzat (3.1.a.iv oinarria)** agertzen diren eskabideen hautagaiek **2023ko urriaren 31ra arte** aurkeztu ahal izango dute doktoregoa egiteko tituluaren espediente akademiko osoa.

Zerrenda honetan **onartutzat jotzen diren eta zuzendu beharreko dokumentazioa eta bazter utzitako agiriak dituzten hautagaiek 10 egun balioduneko epea izango dute, 2023ko irailaren 15etik 28 ra, biak barne,** adierazitako akatsak zuzentzeko edo nahi dituzten alegazioak aurkezteko. Epe hori igaro ondoren, zuzendu ez diren eskabideak atzera eginginakotzat joko dira edo, merezimenduak badira, ez dira baloratuko.

**SALBUESPEN GISA**, eskabide-orria betetzeko aurkeztu diren zailtasunen ondorioz, ondoko atal hauek zuzendu daitezke:

- Modalitate lehenetsia(k)
- Ebaluazioaren gai-arloa
- Doktoretza-programaren izena

Puntu horietakoren bat edo batzuk zuzentzeko eskatzen zaien eskatzaileen kasuan, "DATOS FORMULARIO" dokumentua argitaratzen da, zuzendu beharreko informazioarekin eta sinadurarekin osatu beharko dutena. Eredu bera erabili beharko dute GIH **atala zuzentzeko eskatzen zaien eskatzaileek**. Dokumentu **hau bakarrik onartuko da, eta ez da onartuko aldatutako formulario berririk**.

Argitaratutako zerrendan IV. modalitatean onartutako merezimenduen behin-behineko zerrenda agertzen da, eta puntuazioak 7.4 oinarrian aurkeztu den taulan ezarritako 1,2,5 eta 6 irizpideen arabera, guztira 65 punturekin.

Merezimenduei dagokienez, alderdi hauek berrikusi dira:

1. **Graduko espedientearen batez besteko nota edo baliokidea normalizatu ondoren lortutako puntuazioa.**
2. **Hizkuntza ez-ofizialak jakitea, B2, C1 eta C2 ziurtagirien bidez egiaztatuta, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailen arabera.**
5. **Frantsesa jakitea espainiar nazionalitatea eskatzen dutenentzat, edo gaztelania edo euskara jakitea frantses nazionalitatea eskatzen dutenentzat.** Beste nazionalitate batzuetako pertsonak gaztelania edo euskara eta frantsesa badakitela egiaztatu beharko dute, meritua kontuan har dakienez. B1, B2, C1 eta C2 ziurtagirien bidez kreditatu behar da, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailen arabera.
6. **Gutxienez tesi-zuzendari bat egotea, UPV/EHUn lanaldi osoko kontratua izanik eta UPV/EHUko Doktoretza-programan parte hartzeko baldintza betez (4.2.a oinarria), dagoeneko defendatu den doktore-tesi bat baino gehiago zuzendu ez duena.**

Eskatzaileek VRik onartutako eta baloratutako merezimenduak egiaztatu ahal izango dituzte, eta, okerrak direla uste badute, adierazitako akatsak zuzendu edo nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte 10 egun balioduneko epean, hau da, **2023ko irailaren 15etik 28ra, biak barne.**

Deialdiaren oinarriekin bat, **ez da inolaz ere onartuko eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren lortutako merezimendurik, ez eta eskabideak aurkezteko epearen barrenean alegatu ez direnik ere.**

Alegaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da hautagaiak onartzen dituela meritua, eta ez da beharrezkoa izango izapide gehigarriak egitea.

**Eskabide kopurua dela-eta, ezin izango da telefono deirik egin. Komunikazio bidea honakoa izango da: [solicitudes-pif.dgi@ehu.eus](mailto:solicitudes-pif.dgi@ehu.eus)**

**Zuzenketak eta alegazioak deialdiaren 6. oinarrian azaldutako bide berberak erabiliz aurkeztu beharko dira.**

Leioa, 2023ko irailaren 14an.

**IKERKETA-DEIALDIEN ATALA**  
Ikerketako Errektoreordetza